

8

GIDA

DIDAKTIKOA:

GIZAKIEN SORRERA (INDONESIAKOA)

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	4. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	12. or.
Bibliografia	19. or.
Egileak	20. or.

GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA.

	Etapako helburuak	2. zikloko edukiak
Ahozko hizkuntza	Ezagutzak eraikitzeo zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentziaz, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzeokoak, bai ezagutzak eraikitzeokoak. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna gisa erabiltzea.
	Interakziozko egoeretan, komunikazioa sustatzen duten alderdiak aintzat hartzea.	Solaskideek hizkuntzaz egiten duten erabilerari begirunea izatea. Euskara ikasten ari direnen ahoskatzeari zein ekoizpenei begirunea adieraztea eta laguntzazko jarrerak garatzea.
Hizkuntza idatzia	Testu idatziak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Irakurtzeko estrategiak erabiltzen hastea: aurretiazko ezagutzak gogoratzea, hipotesiak egitea, testuari laguntzen dioten irudietako informazioaz baliatzea, ulertzen ez dituen hitzak identifikatzea eta galdetzea. Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Irakasteko helburua duten testuak ulertzea, hala nola helburu didaktikoa dutenak zein eguneroko bizitzan erabiltzen direnak: azalpenak.
	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeo.	Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Hizkuntza idatzia komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa balioestea.
	Gelako jarduerak burutzeko, grafikoetan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeo.	Kode/eskala grafikoaren informazioa identifikatzea eta interpretatzea. Hizkuntza idatziaren eta grafikoaren arteko ezberdintasun nagusiak bereiztea.
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriak errepikatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	ekoitziko dituen mezu idatziak hartzaileari eta helburuari egokitzea. Elementu grafiko eta paratestual xumeak erabiltzea. Euskarrian testua ondo banatzearen garrantzia ulertzea eta aintzat hartzea. Landutako testuak identifikatzea: azalpena. Landutako testuen egitura identifikatzea: hasierako agurra, planaren berri ematea, gaia garatzea, iritzia adieraztea eta amaierako agurra. Eremu akademikoari dagozkion testuak sortzea informazioa lortzeko, antolatzeo eta adierazteko, hala nola ikaskideentzako azalpen laburrak.
	Teknologia erabiltzea idatzizko mezuak sortzeko.	Webgune batzuetako informazioa ulertzea eta ikaskideei adieraztea.
Hizkuntzaren gaineko hausnarketa	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ordezkapen lexikalak eta hitzen erabilera ez-literala. Ikasgelan lantzen diren testu generoak identifikatzea, elementu paratestualei zein testualei errepikatuz. Testuen transformazioak egitea: zabalduz, ordezkapenak eginez, osatuz, murriztuz edo atalen bat kenduz. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuen izenak ikatea. Hizkuntza idatzia balioestea hainbat eremutan.
	Hizkuntzak ikasteko eta hobesteko konfiantza adieraztea.	
	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ordezkapen lexikalak eta hitzen erabilera ez-literala. Ikasgelan lantzen diren testuen generoak identifikatzea, elementu paratestualei zein testualei errepikatuz. Testuen transformazioak egitea: zabalduz, ordezkapenak eginez, osatuz, murriztuz edo atalen bat kenduz. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuen izenak ikatea. Hizkuntza idatzia baloratzea hainbat eremutan.

	Etapako helburuak	2. zikloko edukiak
Ahozko hizkuntza	Ahozko testuak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Eguneroko egoerei dagozkien haurren esperientziekin erlazioatutako testuetan informazio zehatzak ulertzea, hala nola errutinak, oharrak, instrukzioak, azalpenak, iritziak, bizipenen kontakizunak, sentimenduen adierazpenak. Ahozko testuak ulertzeko estrategiak garatzea, hala nola, hipotesiak egitea, ideia nagusia eta informazio zehatzak identifikatzea.
	Ezagutzak eraikitzeo zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentziak, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzeoak, bai ezagutzak eraikitzeoak. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna bezala erabiltzea.
	Hainbat eremutan ahoz komunikatzea, koherentziak, egoeraren ezaugarriak erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua. Ikastetxean euskaraz komunikatzeko ohitura garatzea, ikasteko, jolasteko eta harreman pertsonaletarako. L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea, hala nola elkarrizketak, bakarriketak, deiak, oharrak. Ahozko komunikazioan ahotsaren kontrola lortzeko ekimena adieraztea.
	Interakziozko egoeretan komunikazioa sustatzen duten alderdiak aintzat hartzea.	Solaskideek hizkuntzaz egiten duten erabilerari begirunea izatea. Euskara ikasten ari diren ahoskatzeari zein ekoizpenei begirunea adieraztea eta laguntzako jarrerak garatzea.
	Teknologia erabiltzea ahozko mezuak sortzeko.	Euskarri digitaleko haurren esperientziarekin eta interesekin erlazioatutako ahozko mezuak ulertzea.
Hizkuntza idatzia	Testu idatziak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Irakurtzeko estrategiak erabiltzen hasia: aurretiazko ezagutzak gogoratzea, hipotesiak egitea, testuari laguntzen dioten irudietako informazioaz baliatzea, ulertzen ez dituen hitzak identifikatzea eta galdetzea. Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Eguneroko egoerei dagozkien haurren esperientziekin erlazioatutako testuetan informazio zehatzak ulertzea, hala nola gonbidapenak, zoriontzak, oharrak eta deiak. Irakasteko helburua duten testuak ulertzea, hala nola helburu didaktikoa dutenak zein eguneroko bizitzan erabiltzen direnak: esku-paperak, deskripzioak, instrukzioak eta azalpenak. Ozen irakurtzea, ahoskatze, intonazio eta erritmo egokiz.
	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeo.	Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Hizkuntza idatzia komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa balioestea.
	Gelako jarduerak burutzeko, grafikoetan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeo.	Kode/eskala grafikoaren informazioa identifikatzea eta interpretatzea. Hizkuntza idatziaren eta grafikoaren arteko ezberdintasun nagusiak bereiztea.
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea, koherentziak, egoeraren ezaugarriak erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Ekoiztiko dituen mezu idatziak hartzaileari eta helburuari egokitzea. Komunikabideetako testuei dagozkien atalak sortzea, hala nola argazki-oinak, izenburuak edo berri laburrak, betiere haurren esperientziatik zein interesetatik hurbil daudenak. Elementu grafiko eta paratestual xumeak erabiltzea. Euskarrian testua ondo banatzearen garrantzia ulertzea eta aintzat hartzea. Landutako testuak identifikatzea. Landutako testuen egitura identifikatzea. Eremu akademikoari dagozkion testuak sortzea informazioa lortzeko, antolatzeo eta adierazteo, hala nola oinarrizko azalpenak.
Teknologia erabiltzea idatzizko mezuak sortzeko.	Testuak prozesatzeko programa informatikoak erabiltzen hasia. Liburutegiaren zein komunikabideen informazioa lortzeko baliabide teknologikoak erabiltzen hasia, laguntza emanda.	

JARDUERA FUNTZIONALA:

Bideoan, gizakiaren, animalien eta Ilargiaren jatorriari eta Artizarraren orbitari buruzko azalpen mitiko bat agertu da. Horiek ulertu ondoren, ulertu zientziak horri buruz esaten duena, eta adierazi ikaskideei ahoz, irudiekin lagunduta.

EKINTZAK:


Hona hemen zeru-lurren sorrerari buruzko kondaira baten testua eta dagozkion irudiak. Irudiak desordenaturik daude. Lot itzazue testu zatiak dagozkien irudiekin.

A _____, B _____, C _____, D _____

Mito baten arabera, hasieran, Lurra eta zerua bat eginda zeuden. Izugarri maite zuten elkar, eta ez zuten elkarrengandik urrundu nahi.

A

1



Baina norbaitek banandu egin zituen. Zerua hain zegoen triste Lurrarengandik urrundu zutelako, negarrez hasi baitzen.

B

2



Eta Lurraren gainean isuri zuen negarra. Hala, euri tantak zeruaren malkoak omen dira.

C

3



Zeruak Lurra maite du, baina, bananduta daudenez, triste dago, eta noizbehinka negar egiten du.

D

4



Orain, berriz, testua duzue, eta irudiak sortu behar dituzue:

Ilargiaren sorrera, kondairaren arabera



Bazen jainkosa bat, Hanua zeritzona. Hanuak intxaurreak gogoko zituen, eta, betekada handi baten ondorioz, haurdun geratu zen. Sabela izugarri handitu zitzaion. Erditzeko unean, ordea, haur bat sortu beharrean, Ilargia sortu zen, eta zerura abiatu zen.

--	--	--

--	--	--

**Baina nola sortu zen ilargia?**

Jo ezazue helbide hauetara, eta, informazioa ulertutakoan, adierazi irudi bidez, ulergarriagoa izan dadin.

Ondoren, lagunei adierazi behar diezue.

--	--	--

--	--	--

Planetak zergatik dabilta Eguzkiaren inguruan?



Izar asko zeuden, eta denak batera mugitzen ziren; abiada bizian, gainera. Artizarra beldurtuta zegoen, bere kontra tupust egin eta birrinduko ote zuten! Laguntza eskatu zien emakume batzuei, eta soka bat jaurti zioten. Ahalegin handia eginez, eutsi egin zioten, eta zuhaitz bati lotu, **Esne Bideko** jario eta mugimendu etengabeak arrastaka eramane ez zezan. Baina, harrezkero, ezin izan da mugitu.

--	--	--

--	--	--

Zer dela-eta planetak ez dira aldentzen?



Kondairan ematen den azalpen hori ez da egia, asmatua baizik.

Zeuek bilatu behar duzue ea Artizarrak eta beste planetek zergatik jarraitzen duten Eguzkiaren inguruan biraka. Hona hemen bi helbide:

http://www.zernola.net/gaiak_ikusi.asp?Era_kutsi=1&Kodea=22

Planeten orbitak ikusteko, hona jo dezakezue:

http://www.zernola.net/gaiak_ikusi.asp?Era_kutsi=1&Kodea=17

--	--	--

--	--	--


Hizkuntza-sistemaren gaineko hausnarketa

Hitzen erabilera

Hitz egin objektuei ematen zaizkien izenen zergatiaz.

Esne Bidea: ez da esnez egindako bidea, baina esnearen ezaugarri bat dauka, kolorea; eta bide bat ere ez da, baina zeruan dagoen bidea ematen du.

Artizarra: planeta baten izena da, ez da izar bat.



Esne Bidea izar talde erraldoi bat da. Gure galaxia da. Gure artean, "Esne Bidea" deitzen diogu.

Hitzen esanahia adostuta dago, baina beti erabil daitezke beste zentzu batean.

Adibidez:


Zeruaren malkoak	a)	Euri tantak
Bi lagun besarkaturik	b)	Lurra eta zerua
Guztion etxea	c)	Lur planeta
Goizeko izarra	d)	Artizar planeta

Ideiak ondo ulertzeko, hitzen erabilera ulertu behar da. Batzuetan, guztiok dakigu nola erabiltzen diren, baina, beste batzuetan, pertsona baten burutazioa izaten da, eta pentsatu behar da zeri egiten dion erreferentzia.


ORAIN, ZUEN TXANDA DA. Asmatu honako objektu hauek izendatzeko moduak:

Ilargia	1.	a)	
Itsasoa	2.	b)	
Gizakiak	3.	c)	
Animaliak	4.	d)	
Landareak	5.	e)	

Egin azaltzeko plan bat, eta gogoan izan:



Adierazi planari jarraituz, baina zeure hitzekin:



Gidoi literarioa blokeka eta denbora zehaztuz

Izenburua:

INDONESIA

MARI: Kaixo denoi! Atal honetan, lurralde urrunetako kondaira batzuen berri eman nahi dizuet. Izan ere, Indonesiatik Polinesiarara herri asko daude, eta jainko zein jainkosa asko sortu dituzte. Hasteko, Indonesia eta Polinesia non dauden erakutsiko dizuet. Ea, (OFF) mapa honetan ikus dezakezue. Oso eremu handia da. Mutur batetik bestera, distantzia handia dago. Tartean, uharte asko daude eta herri asko. Eta herri bakoitzak bere ohiturak ditu. (ON) Mito asko sortu zituzten; alegia, ezagutzen zuten ia guztiaren jatorria azaltzen zuten kondairak. Adibidez, zerua eta Lurra nola sortu ziren.

MARI: (OFF) Bada, Indonesiako mito baten arabera, hasiera batean, Lurra eta zerua bat eginda zeuden. Izugarri maite zuten elkar, eta ez zuten elkarrengandik urrundu nahi. Baina norbaitek banandu egin zituen. Zerua hain zegoen triste Lurrengandik urrundu zutelako, negarrez hasi baitzen. Eta Lurraren gainean isuri zuen negarra. Beraz, euri tantak zeruaren malkoak omen dira: zeruak Lurra maite du, baina, bananduta daudenez, triste dago, eta noizbehinka negar egiten du. (ON) Benetan bitxia, e?

Bueno, baditugu zerua eta Lurra. Orain, Ilargia falta da. Ilargiaren jatorriari buruz istorio asko ditugu: batzuen ustez, gizakion sortzailea da.

MARI: (OFF) Ginea Berriko kondaira baten arabera, berriz, elikagaien sortzailea izan zen. Ilargia zatitu ondoren, zatiak barreiatu egin ziren, eta zatiak fruitu eta janari bilakatu ziren. Hau ere bitxia, ezta? Baina nola sortu zen Ilargia? (ON) Markesa uharteetako kondaira batek dioenez, bazen jainkosa bat, Hanua zeritzona. (OFF) Hanuak intxaurrak gogoko zituen, eta, betekada handi baten ondorioz, haurdun geratu zen. Sabela izugarri handitu zitzaion. Eta, erditzeko unean, haur bat sortu beharrean, Ilargia sortu zen, eta zerura abiatu zen.

MARI: Beste istorio bitxi baten arabera, Yhi jainkosa Lur planetan lotan zegoen. (ON) Lurrean isiltasuna eta iluntasuna besterik ez zen. Bat-batean, hots bat entzun zen, eta Yhi jainkosa esnatu egin zen. Altxatu zenean, dena argiz bete zuen.

YHI: (AHARRAUSIKA) Hau da logura! Ufa! Zenbat denbora eman dut lotan?

MARI: (OFF) Alde batera eta bestera begiratu zuen, baina ez zuen ez inor, ez ezer ikusi.

YHI: Bakar-bakarrik nago. Hau ezin da izan, oso itsusi dago horrela.

MARI: (OFF) Orduan, landareak sortu zituen, eta Lurra geruza berde batez estali zuen.

YHI: Horrela hobeto! Oso ondo geratu da, atsegin dut. Lan bikaina egin dut.

YHI: Eta? Zer iruditzen zaizu?

ZUHAITZA: Ederra, zoragarria. Nik ikusten dudana, behintzat, oso ederra da.

YHI: Bada, ez duzu dena ikusi. Zatoz nirekin beste aldea ikustera.

ZUHAITZA: Gustura joango nintzateke, bai, baina ezin naiz mugitu.

YHI: E? Zer ba?

ZUHAITZA: Landare egin nauzu, eta sustraiak ondo errotuta dauzkat. Ni ezin naiz mugitu, eta gainontzeko landareak ere ez.

YHI: Egia, a zer tuntuna naizen!

ZUHAITZA: Ez diozu horri erreparatu.

YHI: Ez dio inporta, beste izaki batzuk sortuko ditut.

MARI: (OFF) Orduan, Yhi jainkosak animaliak sortu zituen. Hartara, lagunak izango zituen, eta berarekin joango ziren Lur osoa ikustera.

GIZONA: Zer zarete zuek?

TXORIA: Ni txoria naiz.

SUGEA: Eta ni, sugea.

IGELA: Eta ni, igela.

GIZONA: A, bai? Bada, ni gizona naiz.

YHI: Ea, ba, zatozte nirekin mundua ezagutzera.

IGELA: Gusturago joango nintzateke salto egiterik izango banu.

YHI: (OFF) Hala izan bedi.

YHI: Txoria, zu ere gurekin etorriko zara.

TXORIA: (TXIO) Bai, baina nik hegoak nahi nituzke, erosoago mugitzeko.

YHI: Hala izan bedi!

TXORIA: (TXIOKA)

YHI: Gizona, zu ere gurekin etorriko zara.

GIZONA: Ondo da.

YHI: Zuk ez duzu ezer behar?

GIZONA: Zerbaiten falta sumatzen dut, bai, baina ez dakit zer den. Agian, geroxeago bururatuko zait.

TXORIA: (MARMAR)

SUGEA: (MARMAR)

IGELA: (MARMAR)

YHI: Eta zuk, sugea, zerbait nahi al duzu gurekin etortzeko?

SUGEA: Ni oso ondo nago honela.

MARI: (OFF) Animaliei eskatu zizkioten gauzak eman ondoren, Lurra ikustera joan ziren denak. Kobazuloetan ura ipini zuen Yhi jainkosak, eta ibaietan eta itsasoan ere bai. Amaitu zuenean, agur esan zien animaliei, eta alde egin zuen.

IGELA: Zer Lur ederra utzi digun, ezta?

TXORIA: Bai, oso ederra.

SUGEA: Leku zoragarria da bizitzeko.

IGELA: Bai horixe!

SUGEA: Primeran biziko gara hemen!

YHI: Bueno, orain banoa lotara. Lan bikaina egin dut, eta, bukatu dudanez, atsedean hartzera joango naiz.

SUGEA: Nahi duzuna egin dezakezu. Nik kobazulo bat bilatuko dut, neure kumeak gordetzeko.

TXORIA: Txio, txio! Nik, neure kumeak egiteko, habia bat egin beharko dut. Adaxkak bilatuko ditut. Agur!

IGELA: Nik putzu bat bilatu behar dut neure kumeak gordetzeko. Laster arte!

YHI: Eta zuk, jada ba al dakizu zer behar duzun?

GIZON: Bada, ez, oraindik ez zait bururatu.

YHI: Eta nola jakingo duzu?

GIZON: Erantzunak bilatuko ditut.

IGELA: Agur, ba, denoi! Ondo ibili!

TXORIA: Agur!

SUGEA: Agur, agur!

GIZON: Agur, bai, agur.

MARI: (OFF) Elkarri agur esan ondoren, munduan zehar sakabanatu ziren animaliak. Aurrerantzean, Lurrean biziko ziren denak, bai, baina bakoitzak bere bizimodua ateratu beharko zuen.

MARI: (OFF) Yhik alde egin zuenean, ordea, Lurra iluntasunean geratu zen. Ez zen ezer ikusten, ezta ezer entzuten ere. Hasieran, animaliak ez ziren kezkatu, baina, ordu batzuk pasatu eta gero, elkartu egin ziren berriro.

TXORIA: Ei! Inork ba al daki noiz etorri behar duen Yhik? Argirik gabe ezin gara bizi! Txio, txio!

ZUHAITZA: Nire hostoak zuritzen hasi dira. Horrela jarraituz gero, hil egingo naiz.

IGELA: Nik ere argia behar dut, bestela ezin naiz-eta mugitu.

ZUHAITZA: Nola demontre joan da gu hemen utzita?

MARI: (OFF) Larritzen hasiak zirenean, konturatu ziren berriro ere argitzen zuela, zerumugan argi izpiak sortu baitziren.

ZUHAITZA: Iufala, itzuli egin da!

IGELA: Eskerrak!

SUGEA: Salbaturik gaude!

TXORIA: Zer ondo!

YHI: Egunero etorriko naiz zuei beroa eta argia ematera, ez estutu. Sortu ondoren, ez zaituztet abandonatuko!

SUGEA: Gaitz erdi! Zu gabe ezin gara bizi.

YHI: Bihar arte, lagunok, ondo segi!

TXORIA: Agur! Bihar arte!

SUGEA: Agur! Bihar arte!

IGELA: Agur! Bihar arte!

MARI: (OFF) Eta, lasaiago, bakoitza bere bidetik joan zen, tarteka jolasteko elkartzen baziren ere.

IGELA: Kukubiltxo xaldariko, txoriak umeak eginiko, non, non? Haritzaren kaldurruan, trin, tron, prest zarete?

SUGEA: Kirik!

TXORIA: Kirik!

IGELA: Di-da batean aurkituko zaituztet, leku hau primeran ezagutzen dut eta.

MARI: (OFF) Baina, Yhik sortutako Lur hartan, bazegoen non ezkutatu!

IGELA: Hemen ez. Ea ba. Hemen ere ez...

GIZONA: Zertan zabilta?

IGELA: Ezkutaketan jolasten. Nahi duzu gurekin jolastu?

GIZONA: Ez, ez dut gogorik.

IGELA: Zer duzu, bada?

GIZON: Bakarrik sentitzen naiz, ez baitut kidekorik. Bilatzen jarraituko dut. Agur.

IGELA: Baina, zer gertatzen zaio?

SUGEA: Izaki hori ez dago gustura. Zer ote du?

IGELA: Bakarrik sentitzen da. Ez da gu bezalakoa, eta lagunak behar ditu.

TXORIA: Yhiri esango diogu; agian, ez da konturatu.

MARI: (OFF) Yhiri zer esango zioten erabakitzen eman zuten gaua. Eta eguna argitzean...

SUGEA: Bakarrik dago gizajoa.

TXORIA: Bai, eta triste dago.

IGELA: Lagun bat emateko eskatuko diogu.

SUGEA: Bai, bai.

IGELA: Hori egingo dugu.

YHI: Egun on! Zer dela eta esnatu zarete hain goiz? Arazoren bat duzue?

TXORIA: Guk ez, baina zuk sortu zenuen beste izaki batek ez dirudi oso pozik. Triste dago, eta bakarrik dabil.

SUGEA: Ez da inorekin jolasten.

IGELA: Ez.

YHI: Noiztik dago horrela?

TXORIA: Betidanik, beti ikusi dugu horrela.

YHI: Eta orain, non da?

IGELA: Hor gaindi dabil, bera bezalako baten bila.

YHI: Berarengana joango naiz. Konponbideren bat topatuko dut. Gero arte.

TXORIA: Agur, bai.

SUGEA: Gero arte.

IGELA: Agur, agur.

MARI: (OFF) Handik urruti, aintzira baten ondoan aurkitu zuen Yhik gizona. Goibel eta kexu zegoen.

GIZONA: Yhi jainkosa!

YHI: Esan, zer duzu?

GIZONA: Bakarrik sentitzen naiz. Ni bezalakoak direnak non dira?

YHI: Ez dago besterik, bakarra zara. Izan ere, uste nuen ez zenukeela kiderik beharko.

GIZONA: Bada, ez naiz zoriontsu.

MARI: (OFF) Gizonaren tristura eta atsekabea ikusirik, kontsolatzeko konponbideren bat lehenbailehen asmatu behar zuela erabaki zuen Yhi jainkosak.

YHI: Badakit, kide bat sortuko dut, zure laguna izan dadin.

MARI: (OFF) Eta halaxe ekarri zuen Yhik emakumezkoa Lurrera, aurrerantzean gizonaren kide izan zedin. A zer poza hartu zuen gizonak! Hantxe amaitu ziren bere tristura eta atsekabeak. Ordutik aurrera ez zen gehiago bakarrik izango, eta gizonazkoa eta emakumezkoa elkarrekin biziko ziren Lurrean.

MARI: Hauxe da kondaira bat; ikusi duzuenek, gizona emakumea baino lehenago sortu zela esaten duena. Badira beste kondaira asko ere, eta gehienek gauza bera esaten dute:

gizona emakumea baino lehenago sortua izan zela. Bada besteren bat, ordea, gizakia emakume batengandik sortu zela dioena. Bueno, dena dela ere, zerua, Lurra, Ilargia, landareak, animaliak eta gizakiak baditugu jadanik.

MARI: Planeten jatorriari dagokionez, Australiako kondaira polit bat aurkitu dut; Artizarraren jatorria azaltzen duena, hain zuzen. Dakizuenez, Artizarra eguzki-sistemako bigarren planeta da orain. Baina, mitoaren arabera, hasiera batean Esne-bidean zegoen. Ea, ikus dezagun.

ANDREA: Begira, ikusten duzu zenbat izar?

MARI: (OFF) Esne-bidea izar multzo erraldoia da, eta, garai hartan, Artizarra ere bertan omen zegoen.

ARTIZARRA: Lagundu! Lagundu!

EMAKUMEA: Zer duzu? Zer gertatzen zaizu?

ARTIZARRA: Beldur naiz. Lagundu!

ANDREA: Zeren beldur zara, baina? Zerk kezkatzen zaitu?

ARTIZARRA: Izarrek. Izar asko daude hemen goian, eta denak batera mugitzen dira; abiada bizian, gainera. Nire kontra tupust egingo dute, eta birrindu egingo naute! Lagundu!

EMAKUMEA: Ez dakigu, bada, nola lagunduko dizugun.

ANDREA: Itxaron, gauza bat bururatu zait. Ez dakit lortuko dugun, baina egon apur batean. Ea, ba, hemen nonbait dago.

EMAKUMEA: Ene!

ANDREA: Soka hau jaurtikiko dizut. Ea iristen den! Bat, bi, hiru eta lau!

ARTIZARRA: Eskerrak! Salbu nago.

MARI: Ahalegin handia eginez, eutsi egin zioten, eta zuhaitz bati lotu, Esne-bideko jario eta mugimendu etengabeak arrastaka eraman ez zezan.

ANDREA: Hor hobeto zaude.

EMAKUMEA: Lasaiago bai, behintzat! Agur.

ANDREA: Agur, bai, ikusi arte.

ARTIZARRA: Eskerrik asko!

ARTIZARRA: Mmm! Hau da lasaitasuna! Hura eromena zen. Eskerrak emakume horiei; bestela, han goian jarraituko nuke, zoroen pare, beti presaka eta korrika. Ufa! Ai, baina zer gertatzen da? Ezin naiz mugitu. Aizue, zatozte, lotuta utzi nauzue. Zatozte, ahaztu egin zaizue-eta askatzea! Zatozte!

MARI: Harrezkero, hantxe dago. Gaez zeruan ikus daiteke, eta egunez lapiko baten barruan gordetzen dute emakume haiek. Nola? Bada, oso erraz: sokatik tira, eta Lurreraino erakartzen dute, saskian sartzeko.

ARTIZARRA: Atera hemendik! Aska nazazue! Sorgin gaizto alaeak!

MARI: (BARREA)

IGELA: (BARREA)

SUGEA: (BARREA)

ARTIZARRA: Askatu, mesedez, askatu! Askatu!

MARI: (BARREA) Xelebrea da, ezta? Niri, behintzat, hala iruditu zait. Tira, hemen amaitzen da gaurkoa. Baina nik kontatu dizuedana ez da ezer. Mitoen eremu hori hain da handia, ezinezkoa baita kondaira guztien berri hemen ematea.

ARTIZARRA: Askatu!

MARI: Baina badakizue non aurkitu: liburuetan. Hori zuen lana da. Agur eta ikusi arte!

SUGEA: (BARREAK) Agur.

IGELA: (BARREAK) Agur.

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

Egileak

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARA ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K2000 S.A.

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskara arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketa Zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audio teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzio laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du:
2008/05/14

LEGEZKO GORDAILUA: SS-1501/05

Copyright 2007:

L.C. PRODUKTOREA